

noaua

**Mini Klasikoen
II. Topaketa**

**Santio eta Sanesteban
jaietako egitarauak**

**Oporretara goaz,
datorren NOAUA!
irailaren 6an**



**Errauste-plantako
lanak behin betiko
eten egin ditu GHK-k**

PSU
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



antenas
Telemar

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com



USURBILgo Kaxkoan
baserri izandako etxe
batean,
pertsona edo bikote
batentzat
LOFT
polit bat
alokatzen da
(lorategia edo terraza
erabiltzeko eskubidearekin)



645 425 110
edo
605 75 26 67



ORDUTEGI BERRIA:
egunero 06:00tik 21:00ra

asteburutan ere
gaueko 21:00ak arte!

PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

Albisteak iruditan

Mobilizazioak, Seguiolaren estradizioaren aurka

Edozein unetan gauzatu litekeen estradizioaren aurka eta Patxi Seguiolari elkartasuna adierazteko mobilizazioak deitu dira egunotarako Usurbilen. Lehena, aginagarraren egoera plazaratzeko, auzolan deialdia egin zegoen astearte arratsaldeko 18:00etan, Aitzaga aurrean. Eta ostegun honetarako berriz, herri agerraldia antolatu da 20:00etan. Herritarrei Seguiolari elkartasuna adierazi eta mobilizazio hauetan parte hartzeko gonbita luzatu zaie, EH Bilduk joan den ostiral eta astelehen arratsaldean Mikel Laboa plazan deituriko batzar informatiboetan.

Elkarretaratzeotan, Seguiolak bizi duen egoeraren berri jasotzeko aukera egon da. Aldizkari hau inprentara bidaltzerakoan, momentuz, aginagarrak Autunen jarraitzen zuen konfinatuta. Indartsu omen dago, lasai, ahalik eta normaltasun handinez bizitzen, baina bere sorrerian egon nahi lukeela adierazi du. Egunean bitan jendarmeengana sinatzera joan behar izaten du. Eta antza, oraingo jendarmeez ez dute jaso Seguiola estraditzeko agindurik. Azken egunotan bestalde, herritarren babesa jaso du Patxi. Bai asteburuan, baita aste hasieran ere,



Egunotan elkarretaratzeak egin dira Mikel Laboa plazan.

senideak hara joanak baitira. Bisita hauen eta sare sozialen bidez jasotako mezuengatik, batzar informatiboetako deitzaileen bitartez, Seguiolak eskerrak helarazi nahi izan dizkie herritarrei. Bere aurkako estradizioa edozein unetan gauzatu liteke. Hortik aurrera ordea, ez dago

argi zer gertatuko den. Aginagarraren aurkako estradizio eskaerok, Euskal Herriko gatazka konpontzea blokeatzeko estatu espainiar eta frantziarrek erakusten duten jarreraren beste adierazgarrietako bat direla salatu da azken egunotako batzarretan.

Laburrean

Hilabeteko azken ostiraleko elkarretaratzeak

Uztailaren 26a eta 30a izango ditugu uztaileko eta abuztuko azken ostiralak, hurrenez hurren. Ohi denez, Herrirak euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkarretaratzeak deitu ditu bi egun horietarako. 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Eguzkitarako betaurrekoak opari, Usurbil Optikaren eskutik

Eguzkitarako betaurreko batzuk zozketatu ditu Usurbilgo Optikak. Ekainean erosketa egin zuten artean egin zen zozketa eta Feli Escudero Seguiola izan da zori onekoa. Uztailaren 12an jaso zituen betaurrekoak. Irudian dira saritua eta Usurbilgo Optikako ordezkaria.



noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaia.com /// www.noaia.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Bea Alda,

publizitatea@noaia.com.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaia.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa

Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

Ama langabetu batek kontatutakoa

U megintzan ari dira nire lagun gehienak. Uste dutesan izan dudala beste noizbait. Kuraia behar da gero, mundu honetara umeak ekartzeko. Are gehiago, bizi ditugun garai nahasi hauetan. Aitatasun eta amatasun kontuei ez ezik, bestelako kontuei ere erreparatu behar dietelako. Inor ez baitago ezegonkortasun orokor honetatik salbu.

Gure lagun bat ama izan zen abenduan, bigarren. Eusko Jaurilaritzaren esku dagoen zerbitzu batean egiten zuen lan, ordezkapen bat egiten. Amatasun baja bukatu eta lanera itzultzeko pronto zegoenean, bere lanpostuko titularra lanera

itzulia zegoen.

Geroztik, han eta hemen ibili da lan bila, baina zaila dago. Zaila, gauza onerako. Bien bitartean, beste ordezkapen bat egiteko deitu zioten Zarauztik. Astebetekoa. Hori ere osatu zuen eta lanik gabe dabil azken boladan. Zoritxarrez, egoera ez zaio arrotza egiten. Senarra, ofizioz *papelero*, bi urtez egon da langabezian baina eskerrak duela gutxi lana topatu duena, arraindegi batean. Eta gizona pozik, sei hilabeteko kontratua egin diotelako.

Panorama nola dagoen ikusirik, INEMera jo zuen aurreko astean gure lagunak, bi umeren ama. Urtebetez langabezian kobratzeko eskubidea

du eta tramitazio kontuak egitera hurbildu zen. Hitzordua eskatu zuen aurretik eta agindutako orduan azaldu zen. Goizeko 8:30ean.

Alaba nagusia ludotekan utzi eta alaba txikiarekin joan da INEMera (ez ditu zazpi hilabete txikiak). Umeak ume dira, etxean kalean edo INEMen, eta juxtu ordu horretan sesioan hasi behar. Ume hain txikiak, inoiz ez dago jakiterik. Baina egin beharrekoak egiteko moldatu da gure laguna. Behin paper denak osatuak, egin beharrekoak eginda, agurtzeko garaian zera bota dio INEMen atenditu dion langileak: "Horrelako tokietara ume gabe etorri behar da".

- Barkatu baina ez dut norekin utzi, erantzun dio ama langabeak.

"Denok dugu norekin utzi semea edo alaba", temati INEMekoa.

Zur eta lur, edukazioz barkame-na eskatu eta harritura aterako da ama langabea INEMeko bulegoetatik. Etxera iritsi eta hasierako harridura haserre bihurtuko da. Nola da posible?

INEMeko bulegoetan zazpi hilabeteko umeak deserroso diren garaiak bizi ditugu. Eta hori ezin zaio Administrazioari egotzi. Jende baten gizatasuna titare batean kabitzen da. Lanpostu jakin batzuetan, eta bereziki garai hauetan, alderantziz izan beharko lukeenean.

Imanol Ubeda | Luis Aranalde | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | Maialen Unanue | Aritz Gorriti | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi

Ika-Mika

Konponbideari erasorik ez, utzi bakean Euskal Herria!

Patxi Segurola datozen egunotan estraditatu izateko arrisku bizian dago estatu frantseseko kartzeletan 11 urte eta erdi pasa eta gero, Espainiar estatuak eskatutako estradizioaren zain bi urte eta erdi luze konfinatua egon ondoren. Asteazkenean, uztailek 10, azkenik bere gaineko estradizio eskaera onartu zen Patxi Segurolak helegitea jartzeko zuen azken aukera ere ukatuz eta horrela, estradizioaren gauzapanari atek irekiz. Honen aurrean, gure herrikidea den Patxi jasaten ari den errepresioa salatu nahi dugu.

Azken bi urteetan aldaketa sakonak izan dira Euskal Herrian. Konponbidearen aldeko adostasun zabalak eratu dira eta euskal gizarteak bere atxikimendua agertu dio konponbide prozesuari. Alta, espainiar eta frantziar estatuak aurreko

egoerari zegozkion erantzunak ematen dizkiote egoera politiko berriari. Ez dago beraien jardunean aurrerapauso bat bera ere ez.

Bake justu eta iraunkorra eraikitzeak borondate irmoa eta konpromiso eraginkorrak eskatzen ditu. Estatuak euskal jendearen bake itxaropena zapuztu nahi dute. Horregatik, eszenatoki demokratikoa eraikitze bidean oztopo izan daitezkeen jokabideak alboratzea eskatzen dugu, Patxiaren estradizioa kasu. Era berean, Usurbilgo eta Euskal Herriko jendarte osoaren aurrean aukera historiko hau galarazten ez uzteko eta konponbidea bultzatzeko konpromisoa baieztatzea nahi dugu. Usurbilek eta Euskal Herriak bakea behar du!!! Gu konponbidearen alde!!!

Usurbilgo EH Bildu

Lan-deialdiak

Udal langile baten plaza betetzeko lan deialdia: irailtik aurrera hutsik geratuko den udal operario plaza, bitarteko funtzionarioz betetzeko hautaketa prozesua. Eskaerak aurkezteko epea: uztailek 19, 14:30ak arte.

Usurbilgo Esperientzia Eskola Kudeatzeko zerbitzua kontratatzea

Kontratuaren iraupena: 2013/2014 eta 2014/2015 ikasturteak. Beste bi urtez luza-garria. Gehienez, guztira, lau urtera arte. Eskaintzen aurkezpina: Usurbilgo Udalean, 8:00-14:00 artean. Epea: uztailek 24.

Adineko Pertsonen Oroimena Lantzeko Programa

Kontratu iraupena: bi urtekoa, beste bi urtez luza-garria urtez urte. Gehienez ere guztira, 4 urte. Eskaintzen aurkezpina: Usurbilgo Udalean, 8:00-14:00 artean. Epea: uztailek 24.

Informazio gehiago: www.usurbil.net

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Uda, bizi baldintza gogorretatik urrun

MASHA BURAYA 8 URTEKO BIELORRUSIARRA GURE ARTEAN IZANGO DA FAMILIA BATEAN

U surbilen da bigarren urtez, Masha Buraya. Bielorrusiakoa da, 8 urte ditu. Bi hilabeterako, abuztuaren 27ra arte egongo da gure artean. Aste batzuek bada ere, bere eguneroko bizimodu gogorretik urrun, Mamen Tardio eta bere senideen etxeko gogotasunean. Mamen eta familia, iaz lehen aldiz animatu ziren haur bielorrusiarra etxean hartzera, zeregin hauetaz arduratzen den Bikarte elkartaren bidez. Esperientzia aberasgarria dela dio Mamenek, eta ahal dutenei, egitasmo honetan parte hartzeko gonbita luzatzen die lerroon bidez.

Nola animatu zineten iaz?

Mamen Tardio. Betidanik nahi izan dugu. Baina iaz egunkarian irakurri genuen, haurrak etxean hartzeko familiak behar zituztela eta Bikarte elkartarekin harremanetan jarri ginen. Bideoak erakusten dizkizute nola bizi diren umezurtegietan, ez dutela ezer, aireportuetara nola heltzen diren ikusten duzu... Animatu ginen eta oso esperientzia ona izan zen.

Zer nolakoa da haurra etxean hartzeko osatu behar den prozesua?

Bikarte elkartekoak dira hedabideetan iragarria jartzen dutenak. Eurekin harremanetan jartzen zara, bilera batera joan behar da. Haiek azaltzen dute, nola bizi diren haurrak euren sorterrian. Gero, izena eman ostean, psikologo batek deitzen dizu eta elkarrizketa egiten



Masha Buraya, erdian eserita. Usurbilen egin dituen lagunekin batera ageri da.

dizu haurra etxean hartzeko gaitasuna ote duzun edo ez aztertu edota ze bizitza mota daramazun jakiteko. Jarraian, paper batzuk sinatu behar dira abokatu batekin, haurra adoptatuko ez duzula ziurtatzeko. Errusiako Gobernuak ez baitu adoptatzen uzten. Beste bileraren bat haurrak noiz datozen eta noiz itzuliko diren jakiteko eta ezer gutxi gehiago.

Kasu honetan Bikarte arduratzen da gainerako tramitazio guztiaz?

Tramitazio guztiaz arduratzen dira. Eurak esa-

ten dizute haurra noiz datorren eta noiz doan. Haurrak datozenean itzultzaile batzuk datoz hegazkinean eurekin. Noizean behin itzultzaileekin geratu behar zara haurrak nola dauden ikus dezaten. Gero bada biltzeko egun finko bat. Udan zehar, hiru jaialdi egun egiten dituzte; bat Araban, bestea Bizkaian eta hirugarrena Gipuzkoan. Hiru jaialditara joan zaitezke, baina gutxienez batera joatea derrigorrezkoa da, monitoreek ikus dezaten haurrak ondo dauden, pozik, zoriontsu. Gainerakoan ez dute gehiago exijitzen.

“Esperientzia aberasgarria da haurrarentzat, eta baita guretzat ere”

Zertan zaie lagungarri esperientzia hau, hona datozen haurrei?

Mamen Tardio. Zoriontsuak dira. Denerako lagungarri zaie. Osasuna hobetzen zaie. Haurra etorri eta hiru zentimetro hazi zen. Beste kultura bat ezagutzen dute, beste hizkuntza bat. Zoriontsu dago, egunero irribarretsu dago. Ilobentzat ere aberasgarria da, duten guztia baloratzen eta partekatzen irakasten die Mashak. Dena topera bizi du, eta asko gozatzeko du guztiaz.

Nik pertsonalki ez dut beste munduko ezer, baina berarentzat aberatsa naiz. Gauza asko ditut, baina berak baloratzen laguntzen gaitu. Esperientzia benetan aberasgarria eta ederra, bai haurrentzat eta senideontzat ere. Eta ez da hainbeste kostatzen.

Gastuak aipatu dituzu. Horrelako kasu batean, zer baliabide behar ditu sendi batek?

Haurraren bidaia 1000-1200 euro artean kostatzen da. Udalek diru laguntzak ematen dituzte, Usurbilgoak tartean. Jasotako laguntza guztiak hona datozen ume guztien artean banatzen dira. Laguntzok haurren bidaia gastuetara bideratzen dira. Iaz 390 euro ordaindu genituen, aurten 260 euro. Udalak diru laguntza eman baitu. Gero Eusko Jaurlaritzak diru laguntza bat ematen zuen, baina aurten kendu egin du. Haur guztien topaketa bat burutu behar zen Jaurlaritzan. Oker ez banago, uztaillaren 19an doaz, eurentzako diru laguntzak berriz ematen hastea eskatzeko. Honez gain, gabonetako loteria eta errifak saltzen dira. Hortik ateratzen den dirua ere haurren bidaia gastuei aurre egiteko da. 260 euroko bidaiaz gain,

gero eguneroko umearen gastuak daude; janaria eta arropa. Kontuan izan, jantzitakoarekin bakarrik dator haurra. Baina ez da hainbesteko gastua.

Gastu gehiena bidaiak eragindakoa da, eta laguntzen arabera, gastua murriztu edo gehitu liteke.

Zer nolako egokitzapena behar izaten da egoera hauetan?

Astebeteko oporraldia hartu nuen lantokian, badaezpada egokitzeko. Beharrik ez nuen izan ordea. Masharen etorrera Usurbilgo festekin egokitu zen. Egun osoan kalean pasatzen genuen. Berak ez zuen sekula buruhandirik ikusi eta oso gustura ibili zen. Oso pozik. Segituan egokitu zen, oso ondo gainera.

Erraustegiko lanak, behin betiko etenda

Goizean hedabideetan zabaldu zena baieztatu zuten iragan ostiral arratsaldean, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa (GHK) erakundeko ordezkariak, erraustegia egiten ari diren gunean bertan. Aipatu planta eraikitze lanak behin betiko eten dituztela berri eman zuten, bertaratu ziren hainbat komunikabideetako kazetarien aurrean. Erabakia uztailearen 12an eguerdian hartu zuen GHK-k, Administrazio Kontseiluak buruturiko bilkuran.

Arrazoi juridiko eta teknikoak bultzatuta hartu dute erabaki garrantzitsu hau. Errauste planta proiektuak hainbat eremutan legea ez duela betetzen ohartarazi zuten. "Irregularitasunak eta lege urraketak izan ditu", berri eman zuten. Are gehiago, Eusko Jaurlaritzak baimendutakoa eta eraiki nahi den erraustegia ez dela proiektu bera, ez datozela bat nabarmendu zuten, baten eta bestearen artean dauden desberdintasun eta aldaketa nabariak agerian utziz. Testuinguru honetan erraustegia eraikiko balitz, ezinbestean legedia urratu beharko litzatekeela ziurtatu zuten.

"Funtsezko aldaketak behartu dira dokumentu batetik bestera"

Errauste planta eraiki ahal izateko emandako Ingurumen Baimen Bateratuaren (IBB) bidez, bere garaian hainbat baldintza jarri zituen Eusko Jaurlaritzak. Obraren Lizitazio Dokumentuak baldintzok ez dituela betetzen azaldu zuten. "Obraren Lizitazioaren Dokumentuak errauskailuari eskatzen dizkion baldintzak, eta Eusko Jaurlaritzak agindutakoak ez datoz bat. Funtsezko aldaketak behartu dira dokumentu batetik bestera. Ingurumen baldintzak aldatu egin dira", diote GHK-tik.

Ingurugiro arau eta agindu zenbait ez ditu betetzen errauste planta proiektuak, eta zeintzuk diren azaldu zuten Zubietan. Batetik, "IBBren aginduaren aurka" zaborra erraustu ostean, geratzen diren hondakin solido kutsakorak tratatzeko azpiegitura proiektutik kan-



Aurreko astean eman zen erabakiaren berri, errauste-plantaren kokalekuan bertan.

IRREGULARTASUNAK

"Obraren Lizitazioaren Dokumentuak errauskailuari eskatzen dizkion baldintzak eta Eusko Jaurlaritzak agindutakoak ez datoz bat"

po utzia dagoela diote. Erraustu toxikoaren tratamendurako azpiegiturarekin ere berdin, zati honen tratamendua ez dela kontuan hartzen. Eta azkenik, errauste plantaren kota, IBBk baimendutakoa baino hiru metro gorago jartzen dela. Ez hori bakarrik, aldaketa honek dakartzan eragin berrien gaineko azterketariek dela egin salatzen dute. Ez, "inpaktu bisualari dago-kiona", ezta "goragoko kota horretan aireratu den kutsadura ze mailatakoa eta zabal-kunde izango duen" ikertuko lukeena.

Horregatik guztiagatik ondorioztatzen dute-nez, "Zubietako errauste plantaren lizitazio modua eta ingurumen baldintzei soilik erreparatuta, lanak ez dira legezko, eta horrenbestez GHK-k bertan behera utzi du lanen exekuzioa".

"Lorpena herritar eta eragileena da"

Errauste plantako lanak etetearen "lorpena herritar eta eragileena da". Hala diote GHK-ko administrazio kontseiluan ordezkariak Gipuzkoa Zero Zabor mugimenduko ordezkariak, egitasmo honi loturiko lanak eten direla jakin ostean. Web orri bidez zehaztu dutenez, aipatu lorpena "momenturik gogorrenetan ere etsi ez eta aurrera egin duten milaka herritarrena" da.

Une garrantzitsu honetan, iraganera begiratu eta Gipuzkoan hamarkada batez bizi izan den egoera ekarri dute gogora. "10 urte luze dira gipuzkoarrok errausketaren mehatxupean bizitzera behartu gaituztenak. Urte guzti hauetan errauste-planta eraiki nahi izan duten herri guztietan garbi adierazi da inork ez duela nahi osasuna eta ingurumena kaltetzen dituen planta toxikorik", adierazi dute GZZ-tik.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

TAXI 24h
Jose Etxabe **USURBIL**
677 37 34 66
943 36 21 78

ARTZABAL
Baserria - Jatetxea
943 36 91 39

Uda honetan hasiko dira Sariako lanak

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK FINANTZATUKO DU SARIA EREMUAREN BERRESKURATZEA

Eremua bera lehengoratzuz, altxor bat izan dezakegula eta etorkizunean beste modu batez begiratuko diogula ingurune honi. Horixe zioen, Usurbilgo Udaleko alkateak Sarian bideratu asmo dituzten lehengoratzeko lanak aurkezteko, iragan astean Potxoenean burutu zen ekitaldi hasieran.

Are gehiago, egitasmotzat bat ez, hau, Saria inguruaz gain "Oriako itsasadarra berreskuratzeko" abiapuntua izango dela iragarri zuen Jose Maria Rivadeneira ingurumen alorreko zinegotziak.

Hainbat onura ekarriko dituela diote: biodibertsitate gune aberatsa berreskuratzeko aukera, uholdeak saihestea edota tokiko ekonomia sustatzea. Uraren kalitatea hobetuz joan ahala, angulen arrantza edota turismoa bultzatzeko pizgarri izan baitaiteke. Krisi garai honetan, ekonomia berdea delakoa bultzatzeko aukera eskaini dezake egitasmotzat honek. "Zubieta-Orio arteko pasabide berdea sortzeko aukera dugu", adierazi zuen ingurumen alorreko zinegotziak.

Aukera ugari eta aurkezturiko egitasmotzat berri hau, "mugarri historikotzat" jozuen, Aranzadi zientzia elkarteko kide Juantxo Agirrek. Bere esanetan, Saria lehengoratzeko, "borondate politikoa, jakintza eta finantziarioa" batu dira proiektu honen bueltan. Beste hitz batzuetan esanda, erakunde desberdinen arteko elkarlana. Eta elkarlan horretan aurrera egiteko nahi, "urratsak ematea eta aurrera atera ahal izatea" nahi hau plazaratu zuen. Gogoa izan, Aranzadiokoei dutela egina, Saria lehengoratzeari loturiko azterlana.

Bada zer egina

Udal ingurumen teknikari Ibon Goikoetxeak Sarian erreferente gisa aurkeztu zituen iragan asteko ekitaldian, Urdaibai eta Txingudiko inguruneak. Bizkaiko kosta zati horretan, ingurune mailako berreskurapenetik



Premiak eraginda edo, Ingurugiro batzordean ez zen Sariakoa gai ordenean jaso eta honek zeresanik eman du. Argazkia, aurreko astean Potxoenean egin zen aurkezpeneko da.

haratago doa eta lortu dutena; ibilbideak, historia... sustatu baitituzte. Txingudin beste hainbeste, behatokia edota interpretazio gunearekin. Eremuotan egin duten lanketaren ildotik, Goikoetxeak zioenez, altxor bat dugu Oriako itsasadarra. "Bada non lan egina", adierazi zuen.

Sariako lanketa eremua, udalarenak diren lurretan burutuko da. Iraganean erabilera desberdinetara bideratu den gunean hain zuzen. XX. mende hasieran eremua bera lehertu egin baitzen, erabilera industrialerako. Gerora nekazaritzara bideratu ziren lurrok. Baina gazitasun maila altuagatik, erabilerarik ez zuten. Makalak landatzeko ere baliatu da Saria ingurua. "Baina emaitza onik" ez dute eman Udalletik diotenez. Orain bai, legediak ematen duen aukera bakarra baliatuta, babes bereziko eremu hau lehengoratzeko da. Besteak beste, Udalak eginiko ahaleginari edota Foru Aldundiari esker. Gipuzkoako erakunde nagusiak finantzatzeko baitu proiektua. Lehengoratzeko lanak uda honetan bertan abiatuko dituzte.

Proiektuaren gauzatzea, zazpi urteren buruan

Babes bereziko eremu izendapena jaso eta urte gutxira hasi zen Saria inguruaren berreskuratzeko Udalaren lanketa:

- 2004: babes eremu izendatu zuten lehen aldiz.
- 2006: Saria berreskuratzeko laguntza eskatzen dio Udalak Jaurilaritzari.
- 2009: Aranzadi elkartekoei azterlana egitea eskatzen zaie. Gero, geldialdia aurreproiekturako laguntza faltagatik.
- 2010: Aldundiarekin harremanetan hasten da Udala. Itsasadarra berreskuratzeko harremanak abiatzen dira erakunde desberdinen artean.
- 2013/VI: Aldundiaren finantzazioa heltzen da.
- 2013/VIII-IX: lanen hasiera.

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5


AGINAGA
LONTXO ZUBIRIA

Gora zuek!

Ez dakit aspaldi honetan Aginagako kaxkotik pasa zareten, baina asko ibiltzen zaretenok honezkerok ohartuko zineten gure "elizazaharra" eraberritzeko lanak hasita daudela orain hilabete batzuk. Lanak otsailean hasi ziren Bidean, Aginagako herri elkartekoen eskutik. Helburua "elizazaharra" herriko beharrei erantzuna emateko tresna bihurtzea. Eraikuntza udalarena izanik, beraiek jartzen dute dirua bertan erabiltzen ari diren materialak ordaintzeko. Adin desberdinetako herritar talde bat aritu da lanak aurrera eramaten. Bakoitzak ahal duena eskaintzen du, batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago. Baina denak ados dira Felix Aranguren izena aipatzerakoan, berak eskaini baititu obrarako aldarmioak, eta hortxe erabili dituzte bertako lanak egiteko bost hilabetetan zehar dirurik kobratu gabe. Pentsa ezazue hori guztia alokatzaiek ze dirutza suposatuko lukeen.

Inaugurazioa iraileko azken larunbatean egitekoak dira. Poztekoa da gure herriko eraikuntza adierazgarriena berriz ere herritarren esku egotea, jabetza baita herriarena bihurtzen duena. Beraz animo eta segi aurrera!


ATXEGALDE
AINARA ARNAIZ

Abuztu amaieran...

Uda aurrera doala denok konturatu gara, hainbeste denbora zain igaro eta gero eguraldi onak iritsi bezain laster atzean utzi ditugu ekaina eta uztailearen erdia ere. Oraindik beste hainbeste geratzen zaigu itsaso, hondartza zein Euskal Herriko mendi gailurrak ezagutzeko, beraz ez galdu parada eta eguraldi onaren eskuari ondo heldu eta goazen!

Hala ere ez ahaztu natura bizitzeaz gain Euskal Herriko txoko guztietan festak ditugula nonahi, denetarik aurki dezakegu parrandarako, gustu guztietarako dago. Ate joka ditugu Zubietako Santiyoak, baita bultzaka ere Sanestebanak...baina Noauak! banatutako egutegi eder horretan ondo borobildu abuztuaren 30, 31 eta irailaren 1a. Errotulatailearen kolorea zuentzat uzten dut, baina ikusgarria izan dadila aurretik pasatzerakoan!!

Izan ere, beste urte batez, Atxegaldeko gazteok festa bikainak prestatu ditugu udarari amaiera ezin hobea emateko. Ostiral iluntzean txupinazoarekin hasiko dira jaiak eta igande gaueko (esan beharra dugu fama mundiala irabazi duen) traka paregabearekin amaituko dira. Egunez zein gauez ekintza mordoa egongo da adin guztietakoek zuzenduak, aspertzeko denborarik ez da izango gurean!! Musika talde onenez gozatzeko aukera izango da gainera eta sorpresatxoaren bat edo beste ere izango dela dudarik ez izan!! Besterik gabe, ondo pasa uda!!!


ZUBIETA
DENIS ELORTZA

Azken traka

PIN. Datozela oporrek abuztuarekin. Ikasturtean zehar nahikoa lan dugu egin, pasa daitezela azken lan egunak arin. Eta oporrei egin nahi ez badiezu muzin, badakizu, ibili zaitez fin eta ez hartu min.

PAN. Petardo ederra errauste plantan, garaia bazan. Zorionak horretarako egin dutenei lan, izan gobernuan edo plataforman. Ezetz, ez dugula erraus-tegirik nahi ez hemen eta ez han, ez Gipuzkoan eta ez Sakanan.

PUN. Zubietako jaiak baino luzeagorik ba al da inun, aurten ere lotzen ditu Santio bezpera eta San Inazio egun. Krisi garaioz izanik hain ilun, egitarau hain emankorrik inork espero al zun? Erabaki zuk jaietan nola parte hartuko duzun baina Jai Batzordekoen lana denok eskertu dezagun. Eta irakurle, antolatzaileen esana jakin dezazun: musika eta festa etengabe egongo da gau eta egun, eta ez dugu onartuko eraso sexista, homofobo edo arrazista-rik, entzun?

PIN, PAN, PUN! Ea denok ere jaietan ondo pasatzen dugun!


URDAIAGA
NEREA AIZPURUA

Etorri festa girora!

Ajea parranda giroan segituz pasatzen omen dela diotenez, hobereana Zubietako festak amaitu eta segidan Urdaiaga-ri igotzea. Santioak amaitu eta biharamunean abiatuko baitira Urdaiegako San Esteban jaiak. Abuztuaren 1etik 4ra ospatuko ditugu. Azken hileotan egindako bileretan lotzen joan gara, jada esku-ragarri duzuen egitaraua. Ia gustukoa duzuen, eta auzoko plaza bueltara igotzera animatzen zareten. Ikusiko zenuten moduan, Sen taldekoak gurean ditugu aurten. Baita Laket eta Laiotz, erromeria giroa jartzeko prest. Bertsolariak edota herri afaria San Esteban Egunez. Ostirala Haurren Eguna izango da, eta jaiak hasteko oilasko bil-tzera irtetea proposatzen du Jai Batzordeak. Gonbita egina dago beraz. Etorri abuztu hasieran Urdaiaga, zuen zain izango gara eta! Lau festa egun eder izango ditugu, auzokoen eta bertara igoko zareten guztien gozamenarako!

2013
San
tioak
gehigarri berezia





USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

☎ 943 36 46 00

www.lhusurbil.com

Jai zoriontsuak opa dizkizue!!!

Heziketa zikloetarako sarbide frogarako ikastaroak



**38 urte
Pertsonak hezitzen**

**Erdi eta goi mailako
zikloak A eta D Ereduak**

- Administrazioa eta kudeaketa
- Elektrizitate-elektronika
- Fabrikazio mekanikoa
- Ura eta energia
- Produktzio zerbitzu eta manten.

Etarte bidea 9, Zubieta

eskola@lhusurbil.com



*Santio jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

BARAZAR
OSTATU-JATETXEA

LOGELAK KOMUNAREKIN
AFARIAK EGUNERO
BAZKARIAK IGANDE ETA
JAIEGUNETAN

943 36 33 58 ARBITZA BIDEA, ZUBIETA

taberna-jatetxea
ALAMANDEGI

*Santio jai
zoriontsuak
opa dizkizuegu*

☎ 943 36 28 49
ZUBIETA

FERNANDO ITURRALDE, ZUBIETAKO HERRI BATZARREKO ALKATEA

“GU BAT GARA, NAHIZ USURBILEN EDO DONOSTIAN IZAN”

Egin beharreko tramitazioa burututa, 2011ko legegintzaldi erdia osatu ostean, alkatetza aldaketa gauzatu da Zubietan. Alazne Olaizolak utzitako lekua hartu berri du Fernando Iturraldek, 2015eko udal hauteskundeak bitarte. Ekainaren 21ean burutu zuten batzarrean jakinarazi zieten herritarrei aldaketa, aurreko bi urteetako balantzea egin eta esku artean dituzten egitasmoak azaltzearekin batera. Santioak ate joka ditugun honetan herri batzarreko alkate berriarekin bildu da NOAAU!.

Legegintzaldiko lehen bi urteen balantzea, zer moduzkoa izan da?

Fernando Iturralde. Balantzea positibo bezala hartuko nuke. Zenbait gauza oraindik esku artean ditugu baina beste hainbat egin ditugu. Azken batzarrean, jendeak ere onartu zigun orain arte eginiko lana. Baditugu gai potolo batzuk ezin ditugunak aurrera atera, ditugun mugengatik.

Zubietaren zatiketa gainditzeko bidean aurrera egitea lortu da?

Harreman ona dugu udaletxeekin, baina arazoak lehengoan, berdintsuak ikusten ditugu. Gure erronka Zubieta bat izatea da. Gure armariak hala esaten du, batu ez banandu. Eta guk hori oso garbi dugun gauza da. Baina hori borrokatu beharra dugu. Zubietaren zatiketa gauza txikietan ikusten da. Guri min handia ematen digu, zatitzen gaituztenean. Bi konpostagune ditugu; bat Donostiako zatian, bestea Usurbilgoan. Berdinak egitea eskatu zitzaie, berdintsuak dira baina ez dira berdinak. Txorakeria bat dirudi, baina markatuta daude. Guk bat garela argi diogu.

Nortasun kontu batetaz ari gara?

Historikoki herri ez gara behin ere izan, baina herri izaera bat beti izan dugu. Guk hori zaindu eta aurrera eraman nahi dugu. Muga handiak ditugu, baina gure saiakerak hor jarraitzen du. Gure sentimendua garbi hor dago; gu bat gara, denok bat gara. Nahiz Usurbilen, edo Donostia izan.



“Gure erronka Zubieta bat izatea da. Gure armariak hala esaten du, batu ez banandu”

Konpostaguneak aipatu dituzu. Zer moduzkoak izaten ari dira esperientziok?

Parte hartze handia dugu. Gure intenzioa parte hartzea ehuneko ehuna izatea zen, baina oraingoz behintzat ez dugu lortu. Gure erronkak hor jarraitzen du. Zubietak zero zabor herria izan behar duela uste dugu eta gure erronka hor dago. Gainera guk ahal dugu, landa eremu bat baita Zubieta.

Atez ateko bilketa jartzeko sinadura bilketa bat egin zenuten, ezta?

Zubietarren eskaera baten bilketa egin genuen. Azkenean herritarrek esan zigten eredu hau nahi zutela. Baina ez dugu lortzen horretara iristea. Alde bat Usurbil gara, bestean Donostia gara. Mugak ditugu. Eta horregatik batez ere ez dugu lortu. Aurrera egin behar dugu gai honekin. Zubietako hondakinekin ibiltzen garen moduan ibiltzea ez dugu merezi. Ez dugu merezi halako Araeta pareko gune zikin bat izatea. Bi kilometroko egiten ditugu askok zaborrekin eguneroko. Baina eredu erraza eta simple bat hor dugu, atez atekoa. Ikertua dugu oso era simplean egin litekeela atez atekoa Zubietan, baina ez da lortzen jartzea. Zubietarrak horren alde gaude.

Horri lotuta ezin aipatu gabe utzi errauste planta egitasmoa eta azken berriak.

Zubietan kondenatuak gaude hondakinen gai honekin. Aldundiak plan berria

aurkeztu zuenean, beste makro azpiegitura bat proposatu zuen; biometanizazio planta bat. Horregatik diot kondenatuta gaudela. Biometanizazio planta bat ere ez dugu nahi. Erraustegia baino hobea izango da. Baina azken batean, hor jarri digute nahi ez dugun gauza bat eta ez dugu kenduko gainetik. Ahalik eta ondoren hartu dezagun, ahalik eta gauza hobereana har dezagun. Hori izango da gure erronka. Azken batean bizi izan dugunagatik, zero zabor politikan asko sinesten dugu. Zero zabor bidean, hori pixka bat kanpo geratuko litzateke.

Zeintzuk dira bideratzen ari zareten beste lanketa eremuak?

Herri izaera horrekin lanean jarraitzea. Eskuzaitzeta eremua, Artzabaletako gainak; erraustegia, dirudien azkenean kartzela izango den makrokartzela, eta zarata eta kutsadura ekarriko dituen industria eremu erraldoi bat. Errebote plaza. Altxor asko ditugu herri honetan eta altxorretako bat errebote plaza da. Egoera kaxkarrean dugu eta hor gabiltza borrokan ia nola txukuntzen dugun. Eta gero egunerokotasuneko gaiak; bide konponketak,... Guretzat oso garrantzitsua eta gai larria, eskusartze sakon bat behar harko lukeena, gure eskola txikia litzateke. Ume pilo dugu; 60 bat edo, bi gela eta jangela aurrefabrikatueta. Hazten joateko lurrak baditugu, hazteko proiektua ere badugu. Baina hor ere oztopo handiak lortzeko.

Laguntza lortzeko oztopoak, ezta?

Udaletxeak alde ditugu, baina arazo gehiago Jauralaritzarekin. Guretzat umerik gabeko herria, ez da herri bat. Gure umeak gure herriak nahi ditu. Horiei nolabait irtenbidea eman behar diegu. Bai eraikinaren egoerari, eta Usurbil edo Lasartera joan beharrik izan gabe, haurrek ikasketa zikloa hemen amaitu ahal izatea nahi genuke. Zerbait bideratzen ari garela dirudi. Baliabideak baditu Zubietak. Artzabaleta gaina, eta eman dituzten diruekin, horiek ez dira etorri Zubietara eta ez dirudi etorriko direnik Zubietara. Ez dugu eskatzen dena, zati bat gutxienekoa tokatzen zaigula guri. Gure herritik eramanen ari diren hori. Gutxienean frontoia, ikastola, bideak...

Jaietako antolatzaileen lanari gorazarre

Santioak ate joka. Zer modutan parte hartuko duzu?

Fernando Iturralde. Gure papera oso xumea da. Herri batzarkide izanagatik, saiatzen gara soka dantzan parte hartzen. Herritar bezala, gehienak bezala hemen ibiltzen gara festetako saltsan. Lanean aritzen garela diote, baina batez ere gozatu egiten dugu.

Batzarkide moduan zer esan zubitarreri?

Ondo pasatzeko, festez gozatzeko. Zubietan harro egoteko gauza asko ditugu; besteren artean, festak antolatzen dabilen gazte koadrila bat. Lan asko egiten dute, altxor bat dugu hor. Eskertzekoa. Festak eurentzat ere bai, baina batez ere zubiarrrek ondo pasatzeko antolatzen dituzte.

Zubietan egin zen bilkura historiko bat, Donostia duela 200 urte suntsitu zutenean. Ekitaldirik iragarria dago abuztuaren 31ko urtemuga honen harira?

200. urtemugako ospakizun horretan paper bat tokatzen zaigu, garai hartan hemen egin zelako bilera bat. Irailaren 8an festa eguna izango dugu. Gure proposamena da, plaza bueltan egitea festa hori eta gure errebotea ezagutzera ematea, gure izaera ezagutzera ematea. Orduan bezala, zubiak irekiak ditugu beti hemen, bai laguntza eske edo disfrutatzera etorri nahi duen edonorentzat.



Betagarri uztailearen 30ean arituko da Zubietan.

UZTAILAK 24 - UZTAILAK 31

Uztailak 24 asteazkena

19:00 Jaien hasiera: Txupinazoa, buruhandiak ...

20:00 Olinpiaden aurkezpena, Kaxkapen.

21:00 Herri Afaria.

Ondoren Itzarturekin dantzaldia.

Uztailak 25 osteguna

Santio Eguna

09:00 Esnadeia, Donostiako txistulari bandaren eskutik.

10:30 Meza nagusia.

Ondoren Hamaiketakoa eta sokadantza.

18:30 Aizkolariak: Julen Cañameres eta Aratz Mugerza. Harri-jasotzailea: Landarbide.

Segidan Buruhandiak.

Jarraian Bertso-pilota jaialdia.

Uztailak 26 ostirala

Oilasko Biltzaileen Eguna

06:00 Oilasko biltzaileen irteera, Uxue eta Lierni trikitilarien eskutik.

14:00 Oilasko biltzaileen iritsiera.

18:00 Olinpiadak!

22:00 Herri Antzerkia.

Ondoren Musika txosnan.

Uztailak 27 larunbata

11:00 Olinpiadak!

17:00 Ginkana.

Ondoren Zaldi eta pottokan ibiltzeko aukera.

Jarraian Sardin eta piper jana.

23:00 Kontzertuak: Lauroba, ondoren erromeria Laiotzekin.

Uztailak 28 igandea

Jubilatuaren Eguna

09:30 Meza.

12:00 Gaztetxoaren antzerkia.

14:00 Jubilatuen bazkaria.

17:00 Olinpiadak!

18:30 Gorritiren Show-a.

22:00 Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi, Agin Rezola, Iker Zubeldia, Julio Soto.

Gai jartzailea: Asier Azpiroz.

Uztailak 29 astelehena

Umeen Eguna

10:00 Jolasen hasiera.

13:30 Umeen bazkaria: bakoitzak berea ekar dezala, eta gure kontu postrea eta sorpresa.

16:00 Jolasen jarraipena.

Ondoren txokolatada eta Buruhandiak.

19:30 Ur jokoak.

Uztailak 30 asteartea

Gaupasa eguna

00:00 Kontzertuak: Berri Tzararak, Betagarri, Fan&Go taldearekin goizalderarte dantzatzeko aukera.

Uztailak 31 asteazkena

San Inazio eguna

09:00 Zikiro prestaketaren hasiera.

09:30 Meza.

11:30 Errebote partidua.

14:00 Zikiro jana.


18:00 IKUSGARRI motozerra erakustaldia.

Ondoren Pintxo pote txosnan.

22:00 Olinpiaden amaiera.

00:00 Jaien amaiera, traka, suziri eta suzko zezenarekin!

Oharrak: Jaietan gerta litezkeen ezbeharretan, Zubietako Jai Batzordeak ez du erantzukizunik. Musika egunero egongo da txosnetan, gau eta egun. Jaietan ez da onartuko eraso sexista, homofobo edo arrazistarik.



2013
**Sanes
tebanak**
gehigarri berezia

Ekimela


PURUS

GOIZTIARRENAK, URDAIAGA ALDEKOAK



Ziurrenik, inguruotan ospatzen den txupinazo goiztiarrena dugu Xanixtebanetakoa. Ba al da bestela, goizaldeko 5:45etan jaiak hasten dituenik? Urdaiagan halakorik egiteko badute pisuzko arrazoirik ordea. Azken urteotan, jaien hasierak oilasko biltzaileen irteerarekin bat egin baitu. Aurten beraz, abuztuaren lehen egunean ospatuko da, besteak beste, ermita aurreko plazan hasi eta Urdaiaga eta Txokoalde inguruak zeharkatuko dituen kalejira aitzindaria. Ibilbidea Aialde-Berri sagardotegian amaituko dute oilasko biltzaileek, bazkari baten bueltan. Eta gero, parranda giroan jarraitu nahi duenak, gauean Akerra Gaztetxera joan beharko du.

JAIETAN ERE, INDARRAK NEURTZEN



Bestela ere batzutan berotzeko askorik ez da falta izaten eta jaietan gutxiago. Jai Batzordekoek desafiorako plaza jarri eta gainerakoa, partaideen eskutik etorri ohi da. San Esteban Egunez, jaietako bizitasun handia eta barre algara ugari eragiten dituzten auzotarren arteko jolasak ospatuko dira. Aurretik, mus zaleen txanda. Larunbat bazkalosteko saioa, Urdaiagan dute abuztuko lehen asteburuan. 15:30etan izen ematea eta ordu erdi beranduago, txapelketa abiatuko dute.

Festetako azken egunean, herri kirolak izango dira. Emakumezko eta gizonezkoak aurrez aurre arituko dira Urdaigako plazan.

SEN TALDEAREN URTEA



Estreinako kontzertua martxoaren 16an Usurbilgo Gaztetxean eskaini zuten. Hamarkada baten ostean, epe jakin baterako itzuliko zirela iragarri zuten. Eta Gaztetxea leporaino bete zuten lehen emanaldi hartan. Gero etorri dira Gazte Danbada hitzordua, igaro berri diren Santixabeletakoa... Eta itzulera bira horren baitan, hitzartua zuten Urdaigako kontzertua. Abuztuaren 2an, gaueko 23:00etatik aurrera Xanixtebanetakoa oholtza gainera igoko da Sen. Haritz Harreguy eta talde kideek, jaietako gauetako musika giroa, ostiraletik igandera ospatuko diren beste emanaldiokin partekatuko dute; Laket, Laiotz edota Elustondo anai-arreben saioekin hain zuzen.

PUNTAKO BERTSO SAIOA



Harrera ezin hobea duten bi ekitaldi ospatuko dira San Esteban egunez, abuztuaren 3an Urdaiagan. Herri afaria lehenik. Gogoan izan, ohi bezala, norberak eraman beharko du jatekoa. Postrea, kafea eta kopa Jai Batzordekoek zerbitzatuko dute. Eta afalostean, mahaitik mugitu ere egin gabe, zuzenean eta bertatik bertara, bertso saio ederra entzun eta ikusteko parada. Oraingoan, Uxue Alberdi (argazkian), Amets Arzallus eta Beñat Gaztelumendirekin. Hirukotea zirikatzen arituko den gai jartzailea, etxekoa, usurbildarra izango dugu; Leire Iturrioz. Bertso saioa amaituta, mahaitik altxa, afariko azpiegitura desmuntatu eta gerri buelta mugitzeko aukera izango da Urdaigako plazan. Laiotzekoak datoz eta...

ABUZTUAK 1 - ABUZTUAK 4

Abuztuak 1 osteguna

Oilasko Biltzaileen Eguna

05:45 Txupinazoa!

06:00 Oilasko biltzaileen irteera.

14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria, Aialde-Berri sagardotegian.

Gauean, kontzertuak Akerra Gaztetxean.

Abuztuak 2 ostirala

Umeen Eguna

11:00 Marrazki lehiaketa.

Ondoren, haurren jolasak eta buruhandiak.

18:00 Umeentzako xexenak eta pottokak.

Ondoren, txokolatada eta buruhandiak.

23:00 Sen taldearen kontzertua.

Ondoren, Laket-ekin erromeria.

Abuztuak 3 larunbata

San Esteban Eguna

11:00 Meza nagusia.

Ondoren, zahagi banaketa (Espumosos Txapeldunen eskutik) eta Usurbilgo Dantza Taldearen emanaldia.

14:00 Jubilatuen bazkaria Zumeta jatetxean (Berriola Fagor eta Ingemarren eskutik).

15:30 Mus-txapelketako izen-ematea.

16:00 Mus txapelketa.

17:30 Auzotarren arteko jokoak.

21:00 Herri afaria (norberak ekarria, kafea, postrea eta kopa jai batzordearen eskutik).

Ondoren, bertso saioa Beñat Gaztelumendi, Amets Arzallus eta Uxue Alberdirekin. Gai-jartzailea: Leire Iturrioz.

Gauean, Laiotz taldearekin erromeria.

Abuztuak 4 igandea

9:30 Meza.

Ondoren, hamaiketakoa eta toka txapelketa.

18:00 Herri kirolak: Emakumezkoak eta gizonezkoak.

Ondoren, hirugihar banaketa eta Elustondo anai-arreben erromeriarekin festei amaiera emango zaie.

Antolatzailea: San Estebango Jai Batzordea.

Oharra: Jai Batzordeak ez du jai egun hauetan gerta daitezkeen kalteen erantzukizunik hartzen.



Oporretara goaz, datorren aldizkaria irailaren 6an

www.saltxipi-usurbil.com

SALTxiPI



JATETXEA



**BERTAKO HAZTEGIKO MARISKOAK.
ESPEZIALITATEA: ZENTOLLO EGOSITA EDO LABEAN**



ONDO PASA SANESTEBANAKI



ESPEZIALITATEA PARRILAN:
·Haragia (idi txuletoa eta azpizuna)
·Arraina (bisigua, erroboiloa, zapoa...)

GARAICO JAKIAK:
txitxardinak, txipiroiak, hegaluzea,
bakailo tortilla, onttoak...

Txokoalde 23 · USURBIL · 943 361 127 · 943 371 094

Baserritar berriei laguntzeko kanpaina abiarazi du Lurzaindiak

Lurzaindia elkarteak sortu berri dute Lapurdi, Baxenafarroa eta Zuberoan, baserri bizi nahi duten gazteei laguntzeko. Lurzaindia lanean ari da gero eta garestiago den lurzaindiaren erabilera mugatu eta lur bila dabilzan baserriar gazteei aukera hobekuntzarako. "Usurbilen badugu lehendik ere Iparraldeko ahalegin honen berri", Nafartarrak taldekoek aditzera eman diguten moduan. "Lurzaindia sortu da lehen GFA Lurra deitu zen elkartearen oinarrituta. Usurbildar batzuk gogoan izango dute nola herritar askok lagundu zuten Zuberoan 'Kako' baserria erosi nahi zuen nekazari gazte hark bizibidea martxan jartzeko". Orain Lurzaindiak hori bera egin nahi du baina maila zabalagoan. Kanpaina hau bultzatzen ari da egunotan Nafartarrak taldea Usurbilen.

Iparraldean lehen mailako garrantzia duten erakundeek bultzatu dute Lurzaindiaren sorrera: Euskal Herriko Laborarien Batasuna (ELB) sindikatuak, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak, 1.000 familia eta baserriar multzoa biltzen dituen Inter-AMAP elkarteak, beste batzuren artean.

Nekazariak desagertu ez daitezkeen borrokan

Gaur egun Iparraldean urtero 1.000 hektarea lur on galtzen da, etxeak, fabrikak edo azpiegiturak egiteko, sarritan espekulazio hutserako. Bitartean lur falta gero eta handiagoa daukate baserri bizi behar dutenek. Gazteek oso zaila daukate baserri bat antolatzen hastea. Ondorioz, bertan egindako produktuak gutxiegi kontsumitzen dira eta gizarte osoa dago urrundik ekarritako janariaren mende. Horrekin batera, herrietako bizitza ahuldu egiten da: haur gutxi, kaleetan bizirik ez, ekonomia kaxkarra...

"Freskagarriak 2013", uda honetarako irakurgai bilduma

Liburu eskaintza zabal eta freskoena jasotzen duen bilduma kaleratu du Sutegi udal liburutegiak, murgilduak gauden urtaro eta opor garai honi begira; irakurketarako gida zabal den "Freskagarriak 2013".

Udal liburutegiko blogetik berri eman dutenez bestalde, bidaiek edo irteerak antolatzeko dokumentazioa prestatu dute interesa duten guztientzat. Blogeko helbidea hau da:

<http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/?lang=es>



Kanpaina honekin Lurzaindiak lurrak erosiko ditu, lanerako gogoz diren gazteen esku jartzeko.

Nezakaritza herrikoien alde

Lurzaindiak babesten duen laborantza da ELBK, Laborantza Ganbarak eta oro har elikadura burujabatasunaren alde dagoen jendeak defenditzen duena.

Auzolanean lurra erosi

Lurzaindiak herritar guztiei proposatzen diena zera da: Lurzaindiaren akziodun izatea, elkarteak erosi ditzan lurrak eta gero horietan instalatu baserriar izateko ikasi eta gogoz dauden gazteak.

Lurzaindiaren akziodun izan daitezke bai pertsonak eta bai elkarteak. Akzio bakoitzak balio du euro 1; akziodunak gutxienez 20 euro inbertitu behar ditu. Akzioak erosi daitezke kolpe batean baina baita hilerio hainbesteko bat emanez. 2013a bukatzerako 350.000 euro bildu nahi ditu Lurzaindiak.

Kontaktua

Informazio gehiagorako, hona erreferentziak:
Lurzaindia - Bidouze karrika, 32 - 64120 Donapaleu
Telefona: 00335 59654602
E-maila: info@lurzaindia.eu
Webgunea: www.lurzaindia.eu

Irailaren 9ra arte, goizez bakarrik

Blogarekin batera, Sutegi udal liburutegiarekin hartu emanetan hartzeko bideak, honako hauek dituzue:

- Orduetgia: 9:00-14:00 (irailaren 9ra arte).
- Telefona: 943 360 692.
- E-posta: biblioteca@usurbil.net
- Facebook: Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia
- Twitter: twitter.com/usurbil
- Youtube: youtube.com/sutegi05

Udako ordutegiak

- **Oiardo Kiroldetgia:** Asteleheneretik ostiralera, 7:00-13:00 (igerilekua eta Kiroldetgia) eta 17:00-20:30 (igerilekua 20:00ak arte). Larunbat eta igandeetan: 9:00-13:00 (igerilekua eta Kiroldetgia).
- **Sutegi liburutegia:** Asteleheneretik ostiralera: 9:00-14:00, irailaren 9ra arte.
- **Bus taxia:** Abuztuaren 2ra arte goizez. Gero irailaren 2ra arte zerbitzurik ez.

Ziortzakoak ezin hobeto dabilta

Peñaloscintoseetik heldu zaigun argazkia duzue ondoan. Ziortzakoek Errioxako Cameros mendizerra aldean egokitu duten kanpaldi genetiko bidali duten irudia. Uztailean 4an lehen txandan joandako gazte taldea duzue. Begi bistakoa da nola pasatzen ari diren. Asteazken honetan itzultzeoak ziren Usurbila. Egun berean, Errioxara heltzeoak ziren aldiz, udaberrikan kanpamendu honetan parte hartzeo izena eman zuten bigarren txandako gazteak; LH 5 eta 6. mailakoak. Uztailean 25era arte egongo dira bertan.



Atxegaldeko festak, laguntza premian

Abuztuko azken asteburuan ospatuko diren jaien baitan, hurrei zuzenduriko ekitaldiak burutuko dira abuztuaren 31n, larunbat goizez. Hitzorduon harira, Jai Batzordetik deialdi hau zabaldu dute: "Atxegaldeko Jai Batzordeak laguntza eskatzen die Atxegaldeko gurasoei auzoko jaietan "umeen goiza" antolatzeko". Honi lotuta, bilera informatiboa antolatu du ostegun honetarako, uztailean 18rako, arratsaldeko 20:00etan jaiak ospatzen diren plazan. Auzoko gurasoei bildu nahi dute.

Oporretara goaz

Bukatu da ikasturtea NOAUA!koentzat ere. 540. zenbakia plazaratuta oporretara goaz. Irailaren 6an jasoko duzue hurrengo asteakaria. Zorion agur edo oharririk baldin baduzue, erredakzioa noaua.com helbidera bidali.

Entrenatzaile izateko prestatzen



Irailaren 29an hasiko da denboraldi berria.

Agurtu berri dugun denboraldia amaitu eta datorrena abiatzeko tarte honetan, zenbait ikastaroetan murgilduta dabilta Usurbil Kirol Elkarteko kideak. Batetik egunotan, entrenatzaileei begirako prestakuntza ikastaro batean parte hartzen ari da Martin Larrañaga. Hasiera batean ikastaro hau Donostian egin behar zen, baina eskubaloitaldean bilgunez adierazi dutenez, "Donosti Cup-a egoteak lehengo astean Usurbila ekartzeari ahalbidetu digu". Bada gehiago ere. Beste entrenatzaile bat, kasu honetan Aitor Arruti Beldarrain, Madrilgo Pinto hirian dabil egunotan. Entrenatzaile nazional gisa jarduteko prestakuntza ikastaroan parte hartzen dabil. Saiorak bi ziklotan banatuak dau-

de; lehena hilabete honetako da. Hau gaudituko balu, bigarrena datorren urtean egingo luke Arrutik. Usurbil Kirol Elkartetik berri eman dutenez, ikastaro guztiok balio federatiboa dute, ez akademikoa.

11 LAGUN, MONITORE IZATEKO PRESTATZEN

Bestalde, Gipuzkoako Eskubaloian Federazioak eskubaloian monitore gisa jarduteko ikastaroa antolatu du.

Besteren artean, Usurbil Kirol Elkarteko 11 lagun daude izena emanda bertan; 3 neska eta 8 mutil. "Kirol Elkartea honetan gure entrenatzaileen formakuntza oso garrantzitsua dela irizten diogunez, usurbildar guztien inskripzioa geure gain hartu dugu", berri eman dute Usurbil KE-tik.

TITULUEN BEHARRA

Usurbil KEtik gaineratu dutenez, "Eskubaloiko Kirol Formakuntza federatiboa honela dago antolatua (eskalaz igotzeko aurreko titulua behar da, eta eskalan aurrera joan ahala, exigentzia maila esponentzialki igotzen doa):

- Oinarrizko mailakoa: PDJ monitore: infantil mailara arte.
- Maila ertainekoa: Monitore-entrenatzaile: Gipuzkoako ligetako kadetetatik Gipuzkoako 1. territorialera (senior) arte.
- Goi mailakoa: Entrenatzaile-territoriala: Euskal Ligak, 2. nazional mailara arte.
- Elitekoa: Entrenatzaile-nazionala: Eliteko entrenatzaile, edozein kategoriatan entrena daiteke, ASOBAL barne. Kategoria nagusia gaur egun.

2013-2014ko neurketen egutegia prest

Zozketa bidez, hurrengo kirol urteko neurketen egutegia zehaztu berri dute; eskubaloiko senior neska eta senior 2. nazional mailako mutilen taldeena, baita kadete eta jubenil nesken taldearena ere. Guztiek irailaren 29an hasiko dute denboraldi berria.

■ Jubenil-Kadete Neskak

Jardunaldi kopurua: 14.
Lehen jardunaldia: irailak 29.
Aurkariak: Bera Bera, Elgoibar, Zuazo, Errotabarri, Zarautz, Pulpo, Elgoibar, Kukullaga.

■ Senior Neskak

Jardunaldi kopurua: 18.
Lehen jardunaldia: irailak 29.
Aurkariak: Bera Bera, Pulpo, Ereintza, Egia, Aloña Mendi, Urnieta, Zarautz, Leizaran.

■ Senior Mutilak

2. Nazional Mailako Taldea
Jardunaldi kopurua: 26.
Lehen jardunaldia: irailak 29.
Aurkariak: El Pilar, Zarautz, Escopios, Bergara, Trapagaran, Urduiz, Egia, Tolosa, Gure Auzune, Ereintza, Basauri, Corazonistas, Hondarribia.



Iraila bukaeran hasiko dira partidak.

LATAILLADE
ITURGINTZA
Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
Oztaran auzoa 33, URNIETA

izagirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Larunbat honetan, Mini Klasikoen II. Topaketa



Juanito Orella eta Antonio Montoya, Mini Klasikoen Topaketako antolatzaileak.

Zaletasun bat partekatzen dute, eta zaletasun horren inguruan bilduko dira larunbat honetan. Dema plaza Miniz betea esnatuko zaigu. Ibilgailuok dituztenak topatuko baitira uztailaren 20ko goiz honetan Usurbilen. Hamaitakakoa eginda Orioko Bixigu Festara joango dira. Ekimen honek jatorria aipatu bi udalerrion artean du; Aginagan. Bertan euren Miniek topo egin zutenekoa gogora ekarri digute lerrootan, Antonio Montoyak eta Juanito Orellak, Mini Klasikoen Topaketaren antolatzaileak.

Nondik dator ideia?

Antonio Montoya. Antonio eta biok duela bi urte elkar ezagutu ginen, Aginagan, Miniak garbitzen ari ginea, kasualitatez. Hitz egiten hasi ginen, elkarriz telefono zenbakiak eman genizkion. Orioko Bixigu Egunaren harira, Usurbildik Oriora Miniekin lagun artean ibilbide bat osatzea bururatu zitzaigun. Iaz telefonoz harremanetan jarri ginen jendearekin, eta nahi gabe, estatuko topaketa handiena egin genuen. 55 mini ekartzea lortu genituen, Madriletik, Santanderretik, Hego Euskal Herrietik...

Nola lortu zenuten hainbeste mini biltzea?

Juanito Orella. Hartu emanetan jarrita jendearekin. Hemen ingurutik gu biok ginen. Gero, hemendik gertu, Astigarraga, Tolosa, Errenteria eta Villabonatik ere etorri ziren. Aurten Lesakatik ere badator norbait.

Minia erlikia modura izango duen jendea bilduko zarete?

A.M. Kapritxo bat da guretzat.

J. O. Txikitatik ezagutu genuen Minia. Mini bat izan nuen, neure garai honetan. Antigoaleko gauzak gustuko ditugunez, autoa erreparatu eta ondo prestatu nuen, gero lagunekin buelta batzuk emateko. Topaketok jende asko ezagutzeko aukera ematen dute.

Minia duenik baldin bada inguruotan, zer egin dezake larunbatean?

J. O. 9:00-9:30 artean Saizar sagardotegira gerturatu dadila. Itzuli polita egingo dugu. Minia duenak, zalantzarik gabe, etor dadila.

USURBILDIK ORIORA

Uztailak 20 larunbata, goizeko 9:00ak aldera Saizar sagardotegian biltzen joango dira Mini zaleak. Gero, Kaxkora jaitsiko dira, Bordatxon hamaitaketa legea egitera. Jan edanean ari diren artean, autoak Dema Plazan aparkatuko dituzte. Jarraian, Orio aldera joko dute, bertan ospatzeak diren Bixigu Egunera.

- 10:00 Irteera Saizar sagardotegitik.
- 10:30 Hamaitakakoa Bordatxo tabernan. Bitartean, Miniak Dema plazan aparkatuta.
- 12:00 Minien ibilaldia Orion eta inguruetan.
- 14:30 Parte-hartzaileen marmitakoa Orioko Ikastolako pergolan. Bitartean, Miniak ikastola aurrean egongo dira aparkatuta.

Pirinioetan gustura ibili ziren Andatza elkarteko mendizaleak

Pasa den asteburuan, 18 lagun joan ziren Andatza Mendi Elkarteak antolatu zuen irteerara, Pirinioetara. "Bazter ederrak ikusi genituen, bai baso, bai zelai, garoa ugari, artalde ederrak, hegazti ederrak (putreak...), ur jauzi zoragarriak. Mereziz zuten joateak", hala dio NOAUA!ra igorri duten kronikatxoak. Argazki gehiago eta kronika osorik, andatzamendizale.info web orrian.



Irteeran partehartu zuten lagunak.

Errebote ligako txapeldunorde

Bigarren urtez jarraian, Euskal Herriko Errebote Ligako 2. mailako txapeldunorde amaitu du Zubietak. Imanol, Joseba eta Josu Aizpurua anaiek, Jon Argotek eta Ugaitz Rezolak uztailaren 11n Donibane-Garazin jokatu zuten finalean, aurkari taldea, Hiriburua nagusitu zen. 13-5 azken emaitza.



13-5 izan zen azken emaitza.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

eraikuntza@eustalnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ARRANDEGIA PELLO

PUNTA PAX 7
943 36 21 64
USURBIL

prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldan lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko ostalaritzarako, interna moduan 673445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsalde edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Lan eskaintzak

Emakume euskaldun eta esperientziaduna behar da Astigarragan, haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Egun osoan, astelehenetik ostiralera. 943 550 550

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. Telefono zenbakia: 9433743 30

BESTELAKOAK

Teniseko raketa bat aurkitu da Erre-

ka Txiki parkean. 943 371 044.

Usurbilgo baserri batean hazitako oilasko eta untxiak saltzen ditugu. 652 725 022.

Botilei tapoiak jartzeko enkortaxadora bat salgai, 100 euro. Asadore elektriko bat, 100 euro. 943361235

Urrezko lepoko bat galdu da, medalladuna, aurrekaldean Fletra bat duena, eskertuko genuke aurkitzen duenak deitzea. Familiako orroigaria baita (615731134)

Erosi gasolina sorgailu elektrikoak,

berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Frantseseko klaseak hartuko nituzke. 666 607 447

Erromeri talde baterako, tronpetata eta tronboi jole bila gabiltza uda honetako kontzertuetan hasteko. 660214740

Etxean egindako haur manta bat galdu dugu, koadroduna, morea, grisa, horia eta naranja kolorekoa. Aurkitzen baduzu: 626 368 019

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600244 126

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Gaszte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haur jokoak, liburuak, kirol materiala, ispilukuak, lanparak, alfonbrak, sehaskak, maletak... Ataluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Aberre-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udaltzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Gipuzko Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia ..	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak uztailak 18-uztailak 28

Osteguna 18	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 19	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Larunbata 20	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Igandea 21	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Astelehena 22	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Asteartea 23	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte
Asteazkena 24	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte

Osteguna 25	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Ostirala 26	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Larunbata 27	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 28	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

Abuztuko goardiako farmazien berri jaso nahi duenak, www.noaua.com orrialdeko albistegian topatuko du.



Zorionak pottoli!
Dagoeneko
8 urte
beteko
dituzu!!
Muxutxo

bat ama, aita eta
Garaziren partetik!



Zorionak Olatz!
Uztailaren
30ean 4 urte
beteko dituzu.
Muxu handi bat
Saioa, Maialen,

Uxue eta familia osoaren
partez. Ondo igaro eguna!



Zorionak Ibai!
Hilaren 28an
7 urte beteko
dituzu.
Txokolatezko
pastela jan

beharko dugu. Muxu handi
bat etxekoen partez.

Udako oporrak tarteko, ez da NOAUA!rik izango irailaren 6a bitarte. Ohar, zorion-agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: irailak 3 asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaua.com

Agenda uztaila

20 larunbata

■ **Mini klasikoan 2. Topaketa** 10:00etan Saizar Sagardotegitik abiatuta.

23 asteartea

■ **Gutun Sozialari buruzko bilera irekia,** 19:30ean Potxoenean.

24 asteazkena

■ **Santio jaien hasiera Zubietan,** 19:00etatik aurrera, txupinazoa, buruhandiak... Xehetasun gehiago ale honetako gehigarri berezian.

Gutun Soziala eraikitzen joateko lehen bilera, asteartean Potxoenean

Gutun Sozialari buruz aritu izan gara aurretik NOAUA'n, maiatzaren 30ean egin zen Greba Orokorren bueltan hain zuzen. Herri mailan hasi dira lehen urratsak finkatzen. Lehen batzarra, irekia, uztailearen 23rako deitu dute. 19:30ean Potxoenean.

"Lehen batzar honetan, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna osatzera datorren prozesua aurkeztuko da", deitzaileek aditzera eman digutenez. Honez gain, usurbildarrek gutunaren eraikuntza elikatu ahal izateko lan metodologia adostuko da.

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna osatzeko prozesuaren bitartez, "herritar eta langileok burujabetza praktikan jarri eta dagoz-kigun eskubide sozialak barnebilduko dituen



Batzarra irekia da eta ordubete iraungo du.

gutuna osatuko dugu, botere ekonomiko eta gobernu neoliberaleari irmoki erakutsiz, gu garelako gure buruen jabe eta guri dagokigula gure eskubideak zein diren zehaztea".

■ Uztailek 23 asteartea, 19:30ean Potxoenean.

Mandingeen dantza ikastaroa

Urritik aurrera, urte osorako ikastaro hau antolatuko du Usurbilgo Gaztetxeak. Saioak asteazkeneko izango dira, arratsaldeko zazpiketarik bederatzietara. Hileroko prezioa, 28 euro. "Oinarritzko mailarekin hasiko gara. Irakaslea Pierre Cece Koly Camara izango da. Norbaitek nahiko balu, perkusio ikastaroa antolatzeko aukera ere egongo litzateke, Pierre perkusionista ere bada eta. Izen emateko eta informazio gehiagorako: 627 285 904 edo usurbilgogaztetxea@gmail.com

Auzokonpostatze ikastaroa

Hilabetero antolatzen da konpostatze ikastaroa. Uda betean gaude ordea, eta abuztuaren ez da ikastarorik egingo. Baina irailean bai.

Auzokonpostatze egitasmoari loturiko hurrengo ikastaroa iraileko lehen asteazkenean, irailearen 4an beraz, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Potxoenean.

Saio hauen bitartez, konpostatzen hasi nahi duenak zalantza denak argitzeko aukera izango du, eta itxarote zerrendan dauden auzokonpostalarietako zuzendua daude.

Datozenak

Atxegaldeko festak

Abuztuak 30, ostirala

14:30 Bazkaria trikitilariekin.

17:30 Kalejira.

20:00 Txupinazoa. Jarraian, txoznen irekiera eta luntx mundiala.

23:00 Kontzertuak: Odolaren Mintzoa, Ze Esateki!, Laiotz.

Abuztuak 31, larunbata

11:00 Haurrentzako jokoak eta sarien banaketa.

14:00 Herri bazkaria, norberak etxetik ekarrita.

16:00 Mus txapelketa (15:30-16:00 izen ematea).

18:30 Ipuin kontalaria. Ondoren, txokolata-tada.

21:00 Herri afaria, The Hastelens taldeak girotuta.

Gauean, kontzertuak: Ingo al deu, DJ bat.

Irailak 1, igandea

12:00 Aizkolariak eta harrijasotzaileak.

Ondoren, hamaiketako Alkorta Autoserbiziuaren eskutik.

16:30 Toka txapelketa.

18:00 Tortilla patata txapelketa.

19:00 Dantza taldea, erritmo latinoak.

Gauean, azken traka, Pirotecnia Zaragozanaren eskutik.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
 Kale Nagusia 10, 1.C4
 Tlf 943 37 08 78
 20170
 USURBIL

www.iruindagardotegia.com
www.astiazaransagardoak.com



Ondo pasa Santioak!

Iruin Sagardotegia eta Astiazaran Sagardoak

Petritza bidea z/g, Zubieta
943 361 229



SANATORIO *de* USURBIL

USURBIL g o S E N D A T E G I A



San Esteban, 48. Tel: 943 36 11 24 Fax: 943 36 28 98
info@sanatoriodeusurbil.com www.sanatoriodeusurbil.com



Ondo igaro festak!

**ONDO PASA
SANESTEBANAK!**



**URTINEA
LORATEGIA**

**•Garaiko landareak
zure lorategi eta
balkoitarako.
erramuak, zentruak eta
landaretan
aukera zabala hemen
aurkituko duzu.**

Egun osoa irekia •San Esteban auzoa ☎ 943 362 255 Faxa: 943 366 054 • urtinea@urtinea.com

